

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala**

Tokiko Gobernu Batzarrak bertan behera ixtea; Alkateak delegatutako ahalmenak abokatzea eta alkateak berreskuratzea. 765. Alkatetza Dekretua.

Xedea

Tokiko Gobernu Batzarrak bertan behera ixtea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019ko ekainaren 26ko 1511. Alkatetza Dekretuz ohiko Tokiko Gobernu Batzarretako eguna eta ordua finkatzen da.

Bigarrena: Koronabirusa dala eta, hurrengo 15 egunetan alarma egoeran egongo gara. Halanda ze, udaleko langileen osasuna zaintzeko ohiko Tokiko Gobernu Batzarrak bertan behera geldituko dira.

Hirugarrena: 2019ko ekainaren 21eko 1479. Alkatetza Dekretuz alkatearen ahalmenak delegatuta dauden arren, delegazio hori abokatzen da eta alkateak berreskuratuko dauz eskumenak alarma egoera jarraitzen dauen bitartean.

Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, bere 9 eta 10. artikuluetan delegazioa, errebokazioa eta abokazioa arautzen ditu.

Bigarrena: Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, alarma egoeraren adierazpena.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot:

- *Lehenengoa:* Ohiko Tokiko Gobernu Batzarrak bertan behera ixtea alarma egoera irauten dauen bitartean.
 - *Bigarrena:* Alkateak berreskuratzea delegatutako eskumenak eta erabagiak alkatetza dekretuz hartuko dira.
 - *Hirugarrena:* Sail guztieri dekretu honen barri emotea.
 - *Laugarrena:* Hurrengo Osoko Bilkuran Dekretu honen barri emotea.
- Bermeon, 2020ko martxoaren 16an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense